# «Iraunkortasun» proiektua

## Aalborg+10 Nazioarteko Konpromisoei eta Bizkaia 21 Programari lotutako udal iraunkortasun planen eta Tokiko Agenda 21en ekarpenak eta lerrokatzeak

PROIEKTUAREN TALDEA:

Garbiñe Henry (IN)

Itziar López
Jovita Mella
Irene Pérez
Aintzane Prieto

BizkaiLab

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Deusto
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

# «Iraunkortasun» proiektua

## Aalborg+10 Nazioarteko Konpromisoei eta Bizkaia 21 Programari lotutako udal iraunkortasun planen eta Tokiko Agenda 21en ekarpenak eta lerrokatzeak

© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

# «Iraunkortasun» proiektua

## Aalborg+10 Nazioarteko Konpromisoei eta Bizkaia 21 Programari lotutako udal iraunkortasun planen eta Tokiko Agenda 21en ekarpenak eta lerrokatzeak

**Proiektuaren taldea:**

Garbiñe Henry (IN)

Itziar López
Jovita Mella
Irene Pérez
Aintzane Prieto

2015
Deustuko Unibertsitatea
BizkaiLab
Bilbao

© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

Lan honen berregintza, banaketa, komunikazio publiko edo moldaketaren bat egiteko, ezinbestekoa da egileen baimena izatea, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik. Lan honen atalen bat fotokopiatu edo eskaneatu behar izanez gero, jo ezazu CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

© BizkaiaLab
© Deustuko Unibersitatea Argitalpenak
1. postakutxa - 48080 Bilbo
Posta elektronikoa: publicaciones@deusto.es

ISBN: 978-84-15759-83-6

# Aurkibidea

**Hitzaurrea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 13

**1.** Sarrera . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 15

**2.** Ikerketaren helburuak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 17

**3.** Metodologia . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 19

3.1. Lan egiteko tresna . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 19
3.2. Ikergaia eta lan hipotesia . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 20
3.3. Laginak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 22
3.4. Laginaren ezaugarriak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 24
3.5. Kontuan izan beharreko metodologia kontuak. . . . . . . . . . . . . 24

**4.** Emaitzak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 27

4.1. Iraunkortasun Planek Aalborg+10 Konpromisoei egiten dieten ekarpena eta konpromiso horiekin duten lerrokatzea . . . . . . . . 27

4.1.1. Udalerri bakoitzak Aalborg+10 Konpromisoei egiten dien ekarpena eta konpromiso horiekin duen lerrokatzea . . . . 32
4.1.2. Udalerriak alderatzea Aalborg+10 Konpromisoetako bakoitzari egindako ekarpenean eta lerrokatzean . . . . . . . 70
4.1.3 Aztertutako Bizkaiko udalerrien emaitza bateratuak. . . . 72
4.1.4 Emaitzak aztertutako Iraunkortasun Plan bakoitzeko . . . 82

4.2. Iraunkortasunari lotutako aurrekontuen analisia . . . . . . . . . . . . 86

**5.** Ondorioak eta gomendioak. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 91



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

**6.** Esker ona . . . . . . . . . . 95

**7.** Erreferentzia bibliografikoak . . . . . . . . . . 97

**8.** Eranskinak . . . . . . . . . . 103

I. eranskina. Aalborg+10 Konpromisoak eta Azpikonpromisoak laburbiltzen dituen taula . . . . . . . . . . 104
II. eranskina. Ekintzen eta Aalborg+10 Konpromisoen alderaketa aztertutako planetan . . . . . . . . . . 107

# Taulen aurkibidea

1. taula. Planen laburpena Udalerrien arabera . . . . . . . . . . 23
2. taula. Udalerri bakoitzeko ekintzen eta konpromisoen banaketaren laburpena . . . . . . . . . . 33
3. taula. Ekintza guztien banaketa konpromisoen eta azpikonpromisoen arabera . . . . . . . . . . 74
4. taula. Ekintzen laburpena konpromisoz konpromiso aztertutako planetan . . . . . . . . . . 83
5. taula. Aurrekontuen laburpena: konpromiso bakoitzeko gastuak eta sarrerak . . . . . . . . . . 88

# Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa. Bizkaiko udalerrien laginaren biztanleria errolda (2015) . . 25
2. grafikoa. Abadiñoko ekintza kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . 34
3. grafikoa. Abadiño udalaren ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . 34
4. grafikoa. Abanto Zierbenako ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . 35
5. grafikoa. Abanto Zierbenako ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . 35
6. grafikoa. Amorebieta-Etxanoko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . 36
7. grafikoa. Amorebieta-Etxanoko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . 36
8. grafikoa. Arrigorriagako ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . 37



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

9. grafikoa. Arrigorriagako ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 37
10. grafikoa. Balmasedako ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 38
11. grafikoa. Balmasedako ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 38
12. grafikoa. Barakaldoko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 39
13. grafikoa. Barakaldoko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 39
14. grafikoa. Basauriko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 40
15. grafikoa. Basauriko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 40
16. grafikoa. Berangoko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 41
17. grafikoa. Berangoko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 41
18. grafikoa. Bermeoko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 42
19. grafikoa. Bermeoko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 42
20. grafikoa. Berrizko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 43
21. grafikoa. Berrizko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 43
22. grafikoa. Bilboko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 44
23. grafikoa. Bilboko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 44
24. grafikoa. Derioko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 45
25. grafikoa. Derioko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 45
26. grafikoa. Durangoko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 46
27. grafikoa. Durangoko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 46
28. grafikoa. Elorrioko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 47
29. grafikoa. Elorrioko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 47
30. grafikoa. Erandioko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . 48



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

31. grafikoa. Erandioko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 48
32. grafikoa. Ermuko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 49
33. grafikoa. Ermuko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 49
34. grafikoa. Etxebarriko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 50
35. grafikoa. Etxebarriko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 50
36. grafikoa. Galdakaoko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 51
37. grafikoa. Galdakaoko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 51
38. grafikoa. Gernika-Lumoko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 52
39. grafikoa. Gernika-Lumoko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 52
40. grafikoa. Getxoko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 53
41. grafikoa. Getxoko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 53
42. grafikoa. Gorlizko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 54
43. grafikoa. Gorlizko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 54
44. grafikoa. Gueñesko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 55
45. grafikoa. Gueñesko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 55
46. grafikoa. Leioako ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 56
47. grafikoa. Leioako ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 56
48. grafikoa. Lekeitioko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 57
49. grafikoa. Lekeitioko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 57
50. grafikoa. Markina-Xemeingo ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 58
51. grafikoa. Markina-Xemeingo ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 58
52. grafikoa. Mungiako ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . 59



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

53. grafikoa. Mungiako ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 59
54. grafikoa. Muskizko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 60
55. grafikoa. Muskizko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 60
56. grafikoa. Ondarroako ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 61
57. grafikoa. Ondarroako ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 61
58. grafikoa. Ortuellako ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 62
59. grafikoa. Ortuellako ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 62
60. grafikoa. Portugaleteko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 63
61. grafikoa. Portugaleteko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 63
62. grafikoa. Santurtziko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 64
63. grafikoa. Santurtziko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 64
64. grafikoa. Sestaoko ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 65
65. grafikoa. Sestaoko ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 65
66. grafikoa. Sopelako ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 66
67. grafikoa. Sopelako ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 66
68. grafikoa. Trapagarango ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 67
69. grafikoa. Trapagarango ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 67
70. grafikoa. Zallako ekintzen kopurua Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 68
71. grafikoa. Zallako ekintzen ehunekoa Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 68
72. grafikoa. Aalborg+10 Konpromisoei egindako ekarpenaren sailkapena udalerri guztien ekintzen batura oinarri hartuta. . . . 69
73. grafikoa. Aalborg+10 Konpromisoei egindako ekarpenaren ehuneko banaketa udalerri guztien ekintzen batura oinarri hartuta . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 69
74. grafikoa. Udalerri bakoitzeko ekintza kopuruaren batura Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . 70



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

75. grafikoa. Udalerri bakoitzeko ekintzen ehunekoaren batura Aalborg+10 Konpromiso bakoitzean . . . . . . . . . . . . . . . . . . 71
76. grafikoa. Aalborg+10 Konpromiso bakoitzaren % Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrien ekintza guztiekiko. . . . . . . . 73
77. grafikoa. 1. konpromisoko udal ekintzetan azpikonpromiso bakoitzeko ekintzen % . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 77
78. grafikoa. 2. konpromisoko udal ekintzetan azpikonpromio bakoitzeko ekintzen % . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 77
79. grafikoa. 3. konpromisoko udal ekintzetan azpikonpromiso bakoitzeko ekintzen % . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 78
80. grafikoa. 4. konpromisoko udal ekintzetan azpikonpromiso bakoitzeko ekintzen % . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 78
81. grafikoa. 5. konpromisoko udal ekintzetan azpikonpromiso bakoitzeko ekintzen % . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 79
82. grafikoa. 6. konpromisoko udal ekintzetan azpikonpromiso bakoitzeko ekintzen % . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 79
83. grafikoa. 7. konpromisoko udal ekintzetan azpikonpromiso bakoitzeko ekintzen % . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 80
84. grafikoa. 8. konpromisoko udal ekintzetan azpikonpromiso bakoitzeko ekintzen % . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 80
85. grafikoa. 9. konpromisoko udal ekintzetan azpikonpromiso bakoitzeko ekintzen % . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 81
86. grafikoa. 10. konpromisoko udal ekintzetan azpikonpromiso bakoitzeko ekintzen % . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 81
87. grafikoa. Udalerri bakoitzeko sarrerak eta gastuak guztira . . . . . . . 87
88. grafikoa. Biztanle bakoitzeko sarrerak eta gastuak guztira udalerriz udalerri . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 88
89. grafikoa. Sarreren % konpromisoen arabera . . . . . . . . . . . . . . . . . 89
90. grafikoa. Gastuen % konpromisoen arabera . . . . . . . . . . . . . . . . . 89
91. grafikoa. Udaleko gastuen eta sarreren alderaketa konpromisoen arabera . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 90



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

# Hitzaurrea

Deusto Gizarte Berrikuntzatik poztasun handiz aurkezten dizuegu ikerketa lan hau. Bost udal planetan zehaztutako udal ekintzen eta Aalborg+10 Konpromisoen arteko lotura aztertu da, identifikatzeko ea udaletako politika eta ekintzetan iraunkortasuna zeharkako kontzeptu modura benetan hartu den.

Ulerturik garapen iraunkorra dela ahalegintzea gaur egungo beharrei erantzuten etorkizuneko belaunaldien ahalmenari kalte egin gabe, eta garapen iraunkorraren lau arloak kontuan izanik (ingurumena, ekonomia, gizartea eta kultura), Deusto Gizarte Berrikuntzak ahalegin horren zeharkakotasuna aztertu du 5.000 biztanle baino gehiago dituzten Bizkaiko udalerrietan. Horretarako, udalerriek definitutako ekintzak Aalborg+10 konpromisoekin eta azpikonpromisoekin parekatu ditu, herritarrei eta administrazioei ikuspegi argia eta gaurkotua eskaintzeko.

Europar Batasuna eta nazioarteko beste erakunde batzuk aspalditik ari dira lantzen iraunkortasunarekin lotura zuzena duten hainbat arlo: klima aldaketari aurre egiteko lana, irisgarritasuna, berdintasuna, energia berriztagarriak eta mugikortasuna. Hala ere, azken aldi honetan joera handia dago, bai erakunde publikoen aldetik, bai sektoreko eta beste arlo batzuetako profesionalen aldetik, bide hori sustatzeko,



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

iraunkortasuna partekatutako erantzukizun modura harturik. Beraz, ikerketa honen edukia ulergarria eta estrapolatzeko modukoa da.

Horregatik, ikerketa honetan ulertu dugu iraunkortasuna errealitatera eramandako jarrera dela, erabakiak modu arbitrarioan hartzearen kontrako kontzientzia, baliabideak zentzuzkoak ez diren helburuekin erabiltzearen kontrakoa. Hori horrela izanik, aurrekontua ere izan da ikergai.

Deusto Gizarte Berrikuntzan nahi dugu ikerketa hau abiapuntu, termometro eta ibilbide-orri izatea herrientzat, eta Aalborg+10 Konpromisoak udal planak egituratzeko eskematzat hartu dituztenentzat.

Garbiñe Henry
Deusto Gizarte Berrikuntzako zuzendaria
Deustuko Unibertsitatea



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

# 1

# Sarrera

Autonomia Erkidegoa, eta bereziki Bizkaiko Lurralde Historikoa, ingurumen, kultura, ekonomia eta gizarte arloetan lurralde iraunkorragoa izan dadin lortzeko proiektuaren barruan, interesgarria da aztertzea zer egin duten lurraldeko udalerriek ekosistema iraunkorragoak izateko.

Arlo guztietan lurralde iraunkorragoak lortuko baditugu, behar-beharrezkoa da ezagutzea lurralde horiek osatzen dituzten udalerriek nolako jarrera duten, gaur egun, iraunkortasunaren gaian. Hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Deustuko Unibertsitateak izenpetutako BizkaiLab hitzarmenaren barruan, orain aurkeztuko dugun ikerketa egin da, helburu hau hartuta: ebaluatzea zenbateraino datozen bat udaletako iraunkortasun planetan eta 21 agendetan diseinatutako ekintzak eta Bizkaia 21 Programan (Programa Bizkaia 21;, 2006)[1] jasotako Aalborg+10 Konpromisoak (Aalborg Commitments Secretariat, 2004)[2].

---

[1] Bizkaia 21 Programa Bizkaiko Lurralde Historikoa eta bertako udalerriak modu iraunkorrean garatzeko estrategia da. Informazio gehiagorako: http://www.bizkaia21.net/

[2] Aalborg+10 Konpromisoak udalek iraunkortasunaren arloan egiten dituzten ahaleginak indartzeko eta Europako herrialdeetako Tokiko Agenda 21 sustatzeko diseinatuta daude. Informazio gehiagorako: http://www.ccre.org/docs/Aalborg03_05_span.pdf



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

Udalerriek jarduteko duten gaitasuna eta autonomia kontuan izanik, proiektu honen eginkizun nagusia izan da Bizkaiko 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako iraunkortasun plan eta Tokiko Agenda 21 guztiak aztertzea.

Hots, helburua da gaur egun udalerriek iraunkortasunarekin duten konpromisoaren argazki bat egitea, batetik, iraunkortasunerako ekintza planetan zehaztuta dauden ildo estrategiko, programa eta ekintzen azterketa kualitatiboa eginez eta, bestetik, udalerrietako aurrekontuen analisi kuantitatiboa eginez, iraunkortasunera bideratutako ekintza horietan udalerri bakoitzak egiten duen benetako gastuaren irudi adierazgarriagoa izateko.

Azterketa honen bidez, agerian uzten da nolako garrantzia ematen zaion, udal eta lurralde esparruan, Aalborg+10 Konpromisoetan jasotako arlo bakoitzari, bai haietara bideratutako ekintza konpuruetan, bai aurrekontuetan. Ikerlanaren helburu nagusia da Bizkaiko Foru Aldundiaren esku uztea batutako informazioa, lurralde osoko udal planetan konpromisoen banaketa zelakoa den jakin dezan. Hartara, zer egiten den egoki eta zer hobetu litekeen ikusita, etorkizunerako erabaki egokiak hartu ahal izango dira eta ekintza berriak diseinatu ahal izango dira lehen azterketa honetan antzeman diren gabeziak estaltzeko. Gainera, txosten honen bidez, gaur egun udalak iraunkortasunaren arloan egiten ari diren lana aitortu gura da, eta, aldi berean, azpimarratu zein garrantzitsua den aurrera eramaten ari diren ekintzetan lanean jarraitzea eta helburuetara iristeko estrategia berriei ekitea.

Txosten honetan aparteko ahalegina egin da udal ekintza estrategiko bakoitzean iraunkortasunarekin zerikusia duten osagaiak ikusarazteko, ikuspegi baikorra emateko eta, horrela, udalak ahalduntzeko.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

# 2

# Ikerketaren helburuak

Ikerketa honek erakutsi nahi du 5.000 biztanle baino gehiagoko Bizkaiko udalerriek, gaur egun, nolako konpromisoa duten iraunkortasunarekin. Horretarako, udalerri horietako dokumentuak aztertu eta deskribatuko ditu. Ikusi nahi dugu udalen lan ildo estrategikoak eta ekintzak zein neurritan lerrokatzen diren Aalborg+10 Europako Konferentziako Konpromisoekin, etorkizunean helburu horiek indartu edo hobeto betetzea ahalbidetuko duten programak eta ekimenak prestatzeko.

Zehazki, azterlanaren berariazko helburuak bi alderdiren inguruan egituratzen dira:

- Aalborg+10 Konpromisoak betetzen laguntzen ari diren udaletako planak eta programak identifikatzea eta dagokien balioa ematea.
- Bizkaia 21 Programa garapen iraunkorrari laguntzen dion foru tresna bakarra ez dela jakinaraztea, barrura eta kanpora begira.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

# 3

# Metodologia

## 3.1. Lan egiteko tresna

Ikerketa honetan ezarritako helburuak betetzeko jarraitu dugun lan metodologiak bi fase nagusi ditu:

Lehenik, **dokumentuen azterketa** egin dugu, 5.000 biztanle baino gehiagoko Bizkaiko udalerrien errealitatea ezagutzeko, iraunkortasunerako ekintza planei dagokienez. Horretarako, ekintza estrategikoak sailkatu ditugu, bai **plan** guztienak (mugikortasun, energia, aldaketa klimatiko eta berdintasuneko planenak) bai **Tokiko Agenda 21** guztienak, Aalborg+10 Konpromisoekin duten loturaren arabera. Lan horretan, hainbat iturri sekundario (argitalpenak eta beste dokumentu batzuk) identifikatu, sailkatu eta berrikusi dira, betiere informazioaren gaurkotasuna, egokitasuna eta fidagarritasuna bermatzen duten iturriak.

Bigarren, **udalerrietako aurrekontuen dokumentuak aztertu** ditugu, hain zuzen ere aurrekontuetako partidak, iraunkortasunaren arloari arreta berezia jarrita.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

Aurrekontuak Aalborg+10 Konpromisoekin parekatuta aztertzeko, honako metodologia hau erabili dugu:

— Lehenik, Aurrekontu Baterakuntzako Txostenak aztertu ditugu, eta konpromiso bakoitzari berarekin lotutako kopurua esleitu diogu.
— Bigarrenik, Bizkaiko Foru Aldundiak eskura jarritako aurrekontuen banakapena aztertu dugu, bai diru sarrerena, bai gastuena. Biak aztertu ondoren, erabaki hau hartu genuen:

  • Gastuen banakapena ez erabiltzea, kontzeptuak Aurrekontu Baterakuntzako Txostenean jasotako berak zirelako eta ez errepikatzeko.
  • Diru sarreren banaketa erabiltzea, 4. eta 7. izenburuetan jasotako kontzeptuak ez direlako agertzen banakaturik Aurrekontu Baterakuntzako Txostenean.

Horrenbestez, Aurrekontu Baterakuntzako Txosteneko Gastuak eta Sarrerak, eta 4. eta 7. izenburuetan jasotako Sarrera banakatuak kontuan hartuta, azterketa egin dugu eta dagozkion grafikoak ere bai.

## 3.2. Ikergaia eta lan hipotesia

Lan honetako ikergaia da ebaluatzea zenbateraino datozen bat udaletako iraunkortasun plan batzuetako ekintzak eta Tokiko Agenda 21 guztiak Bizkaia 21 Programan jasotako Aalborg+10 Konpromisoekin.

Testuingurua zein de azaltzea komeni da: lan honetan iraunkortasunari buruz hitz egiten dugunean, Nazio Batuetako Erakundeko Ingurumen eta Garapenari buruzko Mundu mailako Batzordeak 1987an sortutako dokumentu batean formulatu zuen kontzeptu batez ari gara. Agiriaren izenburua zen «Denon etorkizuna» eta iraunkortasun kontzeptua honela definitu zen: «oraingo beharrak asetzea etorkizuneko belaunaldiek berenak asetzeko izan behar duten gaitasuna arriskuan jarri gabe» (Nazio Batuen Batzar Nagusia, 1987).



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

Definizio hori osatu egin zuten geroago Nazio Batuetako Ingurumen Programaren eta Naturaren Mundu Funtsaren ekarpenaren bidez, 1991n, adierazi zutenean garapen iraunkorrak zera esan nahi duela: «bizi-kalitatea hobetzea ekosistemen mugen barruan» (UICN; PNUMA et WWF, 1992).Aipatutako definizioei erreparatuz, kontuan izanik ikerketek ere mugak dituztela eta udalerrietako datu parekagarriak lortzeko asmoz, erabaki da lehen faseko dokumentuen azterketan antzeko dokumentuak soilik aztertzea, hau da:

— Tokiko Agenda 21eko Ekintza plana.
— Energia Iraunkorreko Plana.
— Klima Aldaketaren aurkako Plana.
— Mugikortasun Iraunkorreko Plana.
— Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana.

Bigarren fasean, iraunkortasunera bideratutako aurrekontuetako kopuruak aztertzeko, informazio Bizkaiko Foru Aldundiak emandako informazioaz baliatuko gara. Gainera, bere sistematizazioari esker, azterketa konparatibo zehatza egiteko aukera izango dugu, egitura eta kodetze berdinaren arabera baitago sailkatuta..

Azterketa egiteko hartu diren udalerriei dagokienez, aurretik aipatu bezala, 5.000 biztanle edo gehiago dituzten Bizkaiko udalerriak baino ez ditugu hartu. Horren arrazoia da erakunde horiek gaitasun eta autonomia handiagoa dutela biztanle gutxiagoko udalerriek baino, azken hauek udalerria baino lurralde eremu handiagoko erakundeen menpe egoten baitira iraunkortasunerako ekintzei dagokien arloan.

Beharrezkoa da, hala ere, horretarako emandako arrazoiaren gaineko oharra egitea. Ikerketa honetan zehar, argi geratu da zelako garrantzia duten mankomunitateek udal planifikazioari eta udalez gaineko planifikazioari dagokienez. Mankomunitate batzuek (Lea-Artibai, Enkarterri, Nerbioi-Ibaizabal eta Uribe-Kosta, kasurako), eskumenak ondo partekatuta edo ondo eskualdatuta daudenez gero, bertako udalei planak eskaintzen dizkiete eta udalek bere egiten dituzte plan horiek iraunkortasunerako bidean. Beste udalerri batzuek, ostera, erabakitzen dute mankomunitateko estrategia horiek egokitu egin behar direla herri edo hiri bakoitzeko errealitate espezifikora.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

## 3.3. Laginak

Ikerketa honen lehen atalerako, iraunkortasunaren arloarekin lotutako ikerketa eta dokumentuak aztertu ditugu. Horretaz gain, ikerketarako hautatutako udalek eskura jarritako dokumentuak ikusi ditugu. Udal horietan aurreratuta zeuzkaten ikergai dugun arloari buruzko lanak, esaterako: *Energia Iraunkorreko Ekintza Plana, Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana, Mugikortasun Iraunkorreko Ekintza Plana, Klima Aldaketaren aurkako Ekintza Plana eta Berdintasunerako Plana.*

Jarraian dugun taulan ikusten dira ikergai diren 35 udalerriak eta bakoitzak zein plan duen.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

1. taula

## Planen laburpena Udalerrien arabera

| Udalerria | Tokiko Agenda 21 Plana | Energia Berriztagarrien Plana | Klima Aldaketaren aurkako Plana | Mugikortasun Iraunkorreko Plana | Berdintasunerako Plana |
|---|---|---|---|---|---|
| Abadiño | X | | | X | X |
| Abanto Zierbena | X | X | | | X |
| Amorebieta-Etxano | X | | | | X |
| Arrigorriaga | X | | | X | X |
| Balmaseda | X | X | X | | X |
| Barakaldo | X | | | | X |
| Basauri | X | X | | X | X |
| Berango | X | | | X | X |
| Bermeo | X | | | X | X |
| Berriz | X | | | | X |
| Bilbao | X | X | X | | X |
| Derio | X | | | | X |
| Durango | X | | X | X | X |
| Elorrio | X | | | | X |
| Erandio | X | | | | X |
| Ermua | X | | | X | X |
| Etxebarri | X | | | X | |
| Galdakao | X | | | X | X |
| Gernika-Lumo | X | | | X | X |
| Getxo | X | | | | X |
| Gorliz | X | | | X | X |
| Güeñes | X | | | | X |
| Leioa | X | | | | X |
| Lekeitio | X | | | | X |
| Markina-Xemein | X | | | | X |
| Mungia | X | | | | X |
| Muskiz | X | | | X | X |
| Ondarroa | X | | | | X |
| Ortuella | X | | | | X |
| Portugalete | X | | | | X |
| Santurtzi | X | | | | X |
| Sestao | X | | | | X |
| Sopela | X | | | X | X |
| Trapagaran | X | | | | X |
| Zalla | X | | | | X |

*Iturria:* Geuk sortua.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

Ikerketaren bigarren atalean, udalek eskura jarritako aurrekontuen dokumentuak aztertuko ditugu, baita udal bakoitzeko Aurrekontu Baterakuntzako Txostenak ere, Bizkaiko Foru Aldundiak gure esku jarri ondoren.

Horrenbestez, gaiari buruzko informazio sakona eta zehatza bildu da, bigarren mailako informazio iturri eskuragarri guztiak erabilita, eta, horrela, marko teoriko egokia ezarri dugu.

## 3.4. Laginaren ezaugarriak

Aztergai den udal lagina 35 udalerrik osatzen dute. Biztanleriaren banaketa beheko grafikoan azaltzen da. Ikus daitekeenez, udalerri bik, Berrizek eta Markina-Xemeinek, mugatzat jarritako biztanle kopurua, 5.000 biztanle, baino gutxixeago dute; hala ere, udalerri horiek laginaren barruan sartzea erabaki zen (1. grafikoa).

## 3.5. Kontuan izan beharreko metodologia kontuak

Ikerketa honetan zehar udalerrien laguntza izan dugu informazioa biltzeko prozesuan. Hala ere, ez da erraza izan informazio gaurkotua eta irizpide berdinen araberakoa jasotzea, udalerri horietako iraunkortasun planei eta aurrekontuei dagokienez. Horrek zaildu egin ditu, neurri batean, irizpideak bateratzea eta datu eta desberdintasun esanguratsuak lortzea, udalerri batzuek aurrekontuak banakatuta aurkeztu dituztelako, hau da, aurrekontuak arlo eta ekintza zehatzei esleituta, eta beste udalerri batzuek banakatu gabe. Hori dela eta, erabaki da, hemendik aurrera, Bizkaiko Foru Aldundiak egindako aurrekontu exekuzioari buruzko txostenak erabiltzea, arloka guztiz bereizita egon ez arren, Aalborg+10 Konpromisoetan jasota dauden arlo batzuk argi adierazten baira bertan. Dena dela, oraindik gabeziak antzematen dira diru laguntzen bidez jasotako diru sarrerei buruzko datuetan.

Bestalde, irizpide malguak erabili dira udalerriek aurkeztutako ekintzen izaera edo osagai iraunkorrak zehazterakoan, hau da, pentsatu dugu udalerri bakoitzak iraunkortasun irizpideak integraturik dituela aldez aurretik bere planean ezarritako ekintza guztietan eta, beraz, guz-



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

tiek laguntzen dutela Aalborg+10 Konpromisoak betetzen; hortaz, dagokien konpromisoan sartu ditugu.

1. grafikoa

**Bizkaiko udalerrien laginaren biztanleria errolda (2015)**




*Iturria:* EUSTAT.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

Hala ere, ekintza bakoitza konpromiso bateko azpikonpromiso bakar batekin lotu denez, Deusto Gizarte Berrikuntzako ikertaldeak aditu ikuspuntua eskatu zien plan bakoitzaren diseinu, exekuzio eta berrikusketan inplikatutako agente guztiei. Beste modu batera esanda, plan bakoitzeko ekintzak konpromiso batekin lotu edo identifikatu ondoren, hori berrikusteko eta onesteko eskatu zitzaion udalerri bakoitzeko talde teknikoari eta, batzuetan, politikoari.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

# 4

# Emaitzak

## 4.1. Iraunkortasun Planek Aalborg+10 Konpromisoei egiten dieten ekarpena eta konpromiso horiekin duten lerrokatzea

Azterlan honen lehenengo atalean, dokumentuen analisia egin dugu, udalerrietako iraunkortasun planei lotutako dokumentazio zehatza bildu ondoren. Analisi horretarako, udalerri bakoitzeko erreferentziazko taula bat sortu dugu, eta haren bidez iraunkortasunera bideratutako ekintzen datuak gurutzatu ditugu, Aalborg+10 Konpromiso eta Azpikonpromisoetako bakoitzarekin lerrokatuz (ikusi 1. eranskina).

— 1. Konpromisoa. **Gobernatzeko moduak**:

- 1AK: Epe luzean, hiri edo herri iraunkorrari buruzko ikuspegi komuna osatzea.
- 2AK: Tokiko komunitateen eta udal administrazioen parte hartzea eta horiek modu iraunkorrean garatzeko duten gaitasuna areagotzea.
- 3AK: Tokiko sektore guztiei aktiboki parte hartzeko eskatzea.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

- 4AK: Erabaki irekiak, arduratsuak eta gardenak hartzea.
- 5AK: Beste udalerriekin, herriekin, hiriekin eta gobernu erakundeekin bat etorriz eta modu eraginkorrean lankidetzan aritzea.

— 2. Konpromisoa. **Iraunkortasunaren aldeko udal kudeaketa**:

- 1 AK: Tokiko Agenda 21 eta iraunkortasunaren aldeko tokiko beste prozesuak sendotzea eta udal kudeaketan errotzea.
- 2AK: Iraunkortasunaren aldeko kudeaketa integratua posible egitea, prebentzio printzipioetan oinarrituta eta EBko Hiriko Gaikako Estrategiarekin bat etorriz.
- 3AK: Aalborg-eko Konpromisoen esparruan helburuak finkatzea eta epeak zehaztea, eta konpromisoen segimendua egitea errazten duten kontrol lanabesak eratzea.
- 4AK: Udaletako erabakiak hartzeko prozesuetan iraunkortasun gaiak aintzat hartzen direla eta baliabideak ustiatzeko iraunkortasun printzipio irmo eta zabalak kontuan hartzen direla ziurtatzea.
- 5AK: Hiri eta Herri Iraunkorren Europako Kanpainarekin eta horren sareekin elkarlanean aritzea, iraunkortasun helburuak erdiesteko egin dugun bidea gainbegira eta ebalua dezan.

— 3. Konpromisoa. **Natur ondasun komunak**:

- 1AK: Energia primarioaren kontsumoa murriztea eta energia garbien nahiz berriztagarrien kontsumoa handitzea.
- 2AK: Uraren kalitatea hobetzea, ura aurreztea eta modu eraginkorragoan baliatzea.
- 3AK: Biodibertsitatea indartzea eta areagotzea eta berdeguneak nahiz natur guneak zaintzea eta gehiago sortzea.
- 4AK: Lurzoruaren kalitatea hobetzea, ekoizpen ekologikoko lurrak babestea eta nekazaritza nahiz basozaintza iraunkorrak sustatzea.
- 5AK: Airearen kalitatea hobetzea.

— 4. Konpromisoa. **Kontsumo eta bizimodu arduratsuak**:

- 1AK: Hondakinak murriztea eta gehiago birziklatzea eta berrerabiltzea.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

- 2AK: Hondakinak jardunbide egokien arabera kudeatzea eta tratatzea.
- 3AK: Energia premiarik gabe kontsumitzea saihestea eta energia eraginkortasuna hobetzea kontsumitzen den lekuan.
- 4AK: Erosketa iraunkorrak egitea.
- 5AK: Kontsumo eta ekoizpen iraunkorra aktiboki sustatzea, batik bat, etiketa ekologikoa duten produktuak, gai organikoak eta bidezko merkataritzako produktuak bultzatuta.

— 5. Konpromisoa. **Hirigintza diseinatzea eta planifikatzea**:

- 1AK: Leku degradatuak eta bertan behera utzitakoak berreskuratzea eta berrerabiltzea.
- 2AK: Hiriak neurrigabe handitzea eragoztea, hiri dentsitate egokiak izatea eta hiriaren garapena ustiatu diren lekuetara bideratzea berdeguneetara bideratu beharrean.
- 3AK: Lurzoruaren erabilera mistoa bultzatzen duen hirigintza bermatzea, oreka lortzea lantokien, etxebizitzen eta zerbitzuen artean eta bizilekuei lehentasuna ematea hirigunean.
- 4AK: Gure hiriko kultur ondarea behar bezala gordetzen, berritzen eta berrerabiltzen dela ziurtatzea.
- 5AK: Eraikuntza eta diseinu iraunkorrak egiteko eskakizunak ezartzea eta kalitate handiko arkitektura bultzatzea eraikuntzako teknologia berriak indartuz.

— 6. Konpromisoa. **Mugikortasuna hobetzea eta zirkulazioa murriztea**:

- 1AK: Motorizatutako garraio pribatuarekiko mendekotasuna txikitzea eta guztien eskura dauden alternatiba erakargarriak bultzatzea.
- 2AK: Garraio publikoan, oinez eta bizikletaz mugitzen den jende kopurua areagotzea.
- 3AK: Ohiko ibilgailuaren ordez emisio poluitzaile gutxi igortzen dituztenak hartzea erraztea.
- 4AK: Hiriko mugikortasun iraunkorrerako plan integratuak garatzea.
- 5AK: Garraioak ingurumenean eta osasun publikoan duen inpaktua txikitzea.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

— 7. Konpromisoa. **Osasunaren aldeko tokiko ekintza**:

- 1AK: Kontzientzia publikoa areagotzea eta ekintzak egitea osasunerako erabakigarriak diren alderdi askotan, osasun sektorearekin zuzenean lotuta ez badaude ere.
- 2AK: Udalek osasun planak gara ditzaten bultzatzea, hirietan ongizaterako aliantza estrategikoak sortzen eta mantentzen dituzten bideak izan ditzaten.
- 3AK: Osasun arloko desberdintasunak murriztea eta pobrezia gainditzea: horretarako, desberdintasun horiek urritzeko emandako aurrerapausoak aztertu behar dira aldizka.
- 4AK: Osasun inpaktuak ebaluatzea sustatzea, sektore guztiak ahalegin daitezen osasuna eta bizi kalitatea hobetzen.
- 5AK: Hiri plangintzako eragileak mobilizatzea osasun publikoa kontuan har dezaten hirien plangintza egiteko estrategietan eta ekimenetan.

— 8. Konpromisoa. **Tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra**:

- 1AK: Neurriak hartzea tokiko enplegua eta enpresak sortzea errazteko.
- 2AK: Tokiko enpresekin lankidetzan aritzea jardunbide korporatibo egokiak sustatzeko eta ezartzeko.
- 3AK: Enpresen kokalekua zehazteko, iraunkortasun printzipioak garatzea eta ezartzea.
- 4AK: Merkatuei pizgarriak ematea kalitate handiko tokiko nahiz eskualdeko produktuak eros ditzaten.
- 5AK: Tokiko turismo iraunkorra sustatzea.

— 9. Konpromisoa. **Berdintasuna eta justizia soziala**:

- 1AK: Pobrezia geldiarazteko eta arintzeko neurriak garatzea eta ezartzea.
- 2AK: Jende guztiari aukera berak ematea zerbitzu publikoak, hezkuntza, lana, trebakuntza, informazioa eta kultur jarduerak eskuratzeko.
- 3AK: Gizarteratzea eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna sustatzea.
- 4AK: Herritarren segurtasuna hobetzea.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

- 5AK: Kalitate oneko bizi baldintzak eta sozialki integratuta dauden etxebizitza onak bermatzea.

— 10. Konpromisoa. **Tokian tokikotik mundu globalera**:

- A1K: Ikuspegi estrategiko eta integratu bat garatzea eta martxan jartzea klima aldaketa arintzeko, eta berotegi efektua eragiten duten gasen emisio kantitatea iraunkorra izan dadin lan egitea.
- 2AK: Ingurumena babesteko politika gure politiken muinean sartzea energia, garraio, kontsumo, hondakin, nekazaritza eta basozaintza arloetan.
- 3AK: Klima aldaketak izan ditzakeen kausei eta eraginei buruzko kontzientzia handitzea eta prebentzio ekinak sartzea klima aldaketari buruzko gure politiketan.
- 4AK: Mundu osoko ingurumenean eragiten dugun inpaktua txikitzea eta ingurumen justiziaren printzipioa indartzea.
- 5AK: Hirien eta herrien nazioarteko lankidetza sustatzea eta mundu osoko arazoei tokian erantzunak ematea tokiko gobernuekin, komunitateekin eta interesa duten alderdiekin elkartuta.

Zehazki, lehenengo txosten honetan, arestian aipatu ditugun Iraunkortasun Planen berariazko analisitik lortutako emaitzak aurkeztu ditugu.

Emaitza horiek aztertzeko, lau irizpide erabili ditugu:

1. **Udalerri bakoitzak** Aalborg+10 Konpromisoei **egiten dien ekarpena eta** konpromiso horiekin duen **lerrokatzea**
2. **Udalerriak alderatzea** Aalborg+10 Konpromisoetako bakoitzari egindako ekarpenean eta lerrokatzean.
3. **Udalerrien multzoaren ekarpena eta lerrokatzea** Aalborg+10 Konpromisoekin eta Azpikonpromisoekin.
dinak dira). Baina, metodologiaren atalean azaldu dugun bezala, mankomunitateko teknikariei eta udalei eskatu zitzaien fitxa hori baliozkotzeko. Prozesu horretan gerta liteke hiru udalerriek berdin ez banatzea konpromiso bakoitzeko ekintzak, teknikariek erabaki badute mankomunitateko planeko ekintza jakin batzuk ez direla udalerrian gauzatzen.

Deusto Gizarte Berrikuntzako taldeak nabarmendu nahi du, hala ere, Etxebarriko udalean Berdintasun Planik ez edukitzeak ez duela esan nahi udalerrian ez dela ekintzarik bideratzen gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzera. Udalak berak hartzen du eskumen hori bere gain, eta neurriak, ekintzak eta jarduerak proposatzen ditu sail guztietarako eta herritarrek eskura dituzten zerbitzu guztietarako. Berdintasun arloan ibilbide luzea du udalak, baina orain arte ez da jarduera guztiak bilduko dituen plan integralik osatu.

Laburpen taulara itzulita, eta aurretik aipatutakoa kontuan hartuta, aztertutako Berdintasun Planetan jasotako ekintzak ekintza guztien % 35,97 dira. Berriro ere azpimarra dezakegu bederatzigarren konpromisoa dela garrantzitsuena. Izan ere, konpromiso horri lotutako ekintzak Berdintasun Planen lagina osatzen duten 2.623 ekintzen % 35,65 dira.

Oraingoan, 10. konpromisoa («Tokian tokikotik mundu globalera») ez da garrantzi txikienekoa. Hori horrela izan daiteke beste herrialde, erakunde eta antolakunde batzuek zeresana ere badutelako berdintasun politiketan. Emakumeen Nazioarteko Eguna edo Genero Indarkeriaren kontrako Eguna horren erakusle izan daitezke, baita Europako politikak geurera ekartzea ere. Berdintasun Planetan ez dute presentziarik 3. konpromisoak, «Natur ondasun komunak», eta 4. konpromisoak, «Kontsumo eta bizimodu arduratsuak».

## *Mugikortasun Iraunkorrerako Plana*

Oraingoz, aztertutako 35 udalerritatik 13k dute Mugikortasun Plana: Abadiño, Arrigorriaga, Basauri, Berango, Bermeo, Durango,



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

Ermua, Etxebarri, Galdakao, Gernika-Lumo, Gorliz, Muskiz eta Sopela.

Baina, oraingoan ere, lehenago aipatutakoa errepikatu behar dugu. Zenbait udalerritan mankomunitate mailako planak gauzatzen dituzte. Halaxe gertatzen da bi kasu hauetan:

— Berangon, Gorlizen eta Sopelan. Uribe-Kostako Mugikortasun Plana erabiltzen dute.
— Arrigorriagan eta Galdakaon: Nerbioi-Ibaizabal Mankomunitateko Mugikortasun Plana dute.

Mugikortasun Planek ekintzen % 7,82 hartzen dute, 570 ekintza planetan identifikatutako ekintza guztien artean. Korrelazio positiboa dago plan horietan nagusi den konpromisoaren eta planak sortzeko arrazoi nagusiaren artean. Horregatik, eragin handieneko konpromisoa 6. konpromisoa da («Mugikortasuna hobetzea eta zirkulazioa murriztea»), guztira 323 ekintza daude hari lotuta (570 ekintzen % 56,67). Mugikortasun Planetan toki gutxien duten konpromisoak 3. konpromisoa («Natur ondasun komunak») eta 4. konpromisoa («Kontsumo eta bizimodu arduratsuak») dira. Bietako bakoitzean 6 ekintza daude, mugikortasun planetako ekintzen % 1,05.

## *Klima Aldaketaren aurka egiteko Plana*

Balmasedak, Bilbok eta Durangok Klima Aldaketaren aurka egiteko Planak dituzte. Hiruren artean, 273 ekintza aurreikusi dituzte esparru horretan, lagineko 7.292 ekintzen % 3,74.

Klima Aldaketaren aurka egiteko Planei dagokienez, 4. konpromisoa da nagusi haietan («Kontsumo eta bizimodu arduratsuak»); guztira 73 ekintza daude konpromiso horri lotuta, ekintza guztien % 26,74. Garrantzi gutxien duen konpromisoa 9.a da, bost ekintza baino ez zaizkio lotzen.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

Deigarria da 10. konpromisoak («Tokian tokikotik mundu globalera») atal honetan ia garrantzirik ez izatea, konpromiso horren baitako azpikonpromisoek zuzeneko lotura baitute klima aldaketarekin.

### *Energia Berriztagarrien Plana*

Aztertutako Bizkaiko udalerrietan, gutxik dute energia berriztagarrien alorreko planik. Abanto Zierbenak, Balmasedak (orain dela gutxi onartu du), Basaurik eta Bilbok 260 ekintza proposatzen dituzte (ekintza guztien % 3,57). Horietatik 97, hau da, % 37,31, 4. konpromisoari lotuta daude («Kontsumo eta bizimodu arduratsuak»).

Energia Iraunkorrerako Ekintza Planetan ez da jasotzen 7., 9. eta 10. konpromisoetara bideratutako ekintzarik. Azpimarratzekoa da, halaber, 3. konpromisoa («Natur ondasun komunak») ez dela bigarren konpromiso nagusia, konpromiso horren baitako azpikonpromisoek zuzeneko lotura badute ere energiaren erabilera iraunkorrarekin.

## 4.2. Iraunkortasunari lotutako aurrekontuen analisia

Aalborg+10 Konpromisoei lotutako aurrekontuak aztertzeko, metodologia hau erabili dugu:

— Hasteko, Aurrekontu Baterakuntzako Txostenak[1] aztertu dira, eta konpromiso bakoitzari berarekin lotura duten kontu sailak esleitu zaizkio.
— Ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako aurrekontuen banakapena aztertu da, bai sarrerei dagokiena eta bai gas-

[1] Ondoko webgunetik hartutako datuak: http://apps.bizkaia.net/UDIT/



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

tuei dagokiena. Bi aurrekontu horiek aztertuta, hauxe erabaki zen:

- Gastuen banakapena bazterrean uztea, kontzeptuak Aurrekontu Baterakuntzako Txostenean aztertutakoekin gainjartzen zirelako.
- Sarreren banakapena erabiltzea, 4. eta 7. ataletan azaltzen diren kontzeptuak ez baitira jasotzen Aurrekontu Baterakuntzako Txostenean.

Horrela, Aurrekontu Baterakuntzako Txostenetik gastuak eta sarrerak hartuta, eta horiei Aldundiko Aurrekontuetako sarreren 4. eta 7. ataletako banakapena erantsita, aurrekontuaren azterketa egin dugu eta dagozkien grafikoak atera.

87. grafikoan ikus daiteke Bilbok dituela gastu eta sarrerarik handienak (ekintza gehien ere Bilbok ditu). Hiriburuaren atzetik Barakaldo nabarmentzen da.

87. grafikoa

**Udalerri bakoitzeko sarrerak eta gastuak guztira**




*Iturria:* Geuk sortua, iraunkortasun planetatik abiatuta.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

88. grafikoa

**Biztanle bakoitzeko sarrerak eta gastuak guztira udalerriz udalerri**




*Iturria:* Geuk sortua, iraunkortasun planetatik abiatuta.

Ondorengo grafikoek konpromiso bakoitzari lotutako gastuak eta sarrerak emango dizkigute. Grafiko horiek hobeto ulertzeko, beharrezkoa da aztertutako kontu sailetatik lortu diren guztizkoak zein diren eta nola banatu diren jakitea.

5. taula

**Aurrekontuen laburpena: konpromiso bakoitzeko gastuak eta sarrerak**

| | Gastuak | Sarrerak | Ekintza kop. |
|---|---|---|---|
| 1. Konpromisoa | 13.125,00 € | 188.481,01 € | 1.352 |
| 2. Konpromisoa | 44.412,74 € | 596.526,15 € | 510 |
| 3. Konpromisoa | 36.469.332,33 € | 48.531.794,54 € | 576 |
| 4. Konpromisoa | 117.987.392,19 € | 55.388.708,39 € | 550 |
| 5. Konpromisoa | 161.064.289,00 € | 27.654.490,73 € | 476 |
| 6. Konpromisoa | 97.050.189,52 € | 75.648.890,89 € | 869 |
| 7. Konpromisoa | 81.092.296,69 € | 660.487,41 € | 514 |
| 8. Konpromisoa | 40.430.337,80 € | 79.802.020,82 € | 691 |
| 9. Konpromisoa | 436.460.966,60 € | 49.104.424,13 € | 1.668 |
| 10. Konpromisoa | 8.273.857,85 € | 172.422,69 € | 86 |
| Guztira | 978.886.199,72 € | 337.748.246,76 € | 7.292 |

*Iturria:* Geuk sortua.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

89. grafikoa

## Sarreren % konpromisoen arabera




*Iturria:* Geuk sortua, iraunkortasun planetatik abiatuta.

90. grafikoa

## Gastuen % konpromisoen arabera




*Iturria:* Geuk sortua, iraunkortasun planetatik abiatuta.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

90. grafikoa oinarri hartuta, udalerrien gastuaren logika zein den jakin dezakegu. Aurrekontu gehien hartzen duen konpromisoak (9. Konpromisoak, hain zuzen ere) ekintza gehien aurreikusten ditu.

1. konpromisoari dagokionez («Gobernatzeko moduak»), beharrezkoa da ñabardura batzuk eranstea. Izan ere, lehenengo konpromisoak lotura estua du administrazioaren barruan egin beharreko aldaketekin, ekintza soil bat baino gehiago da. Alegia, udalaren erantzukizuna da, esate baterako, genero ikuspegia udalak egiten dituen azterketetan txertatzea. Baina erabaki edo ibilbide horrek ez du, zuzenean, gastu ekonomikorik ekartzen.

Ulergarria da, halaber, hirigintza planifikatzeari lotutako konpromisoa izatea bigarren garrantzitsuena. Adibideren bat aipatzearren, udalerri baten puntu ilunak zuzentzeak hau dena eskatzen du: azterlan bat kontratatzea, proiektua ordaintzea, udalak enpresa eraikitzailea kontratatzeko gastuak bere gain hartzea, etab. Bestela esanda, konpromiso horretatik eratortzen diren ekintzek beste batzuetatik eratortzen direnek baino kostu handiagoa dute.

91. grafikoa

**Udaleko gastuen eta sarreren alderaketa konpromisoen arabera**




*Iturria:* Geuk sortua, iraunkortasun planetatik abiatuta.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

# 5

# Ondorioak eta gomendioak

Fase bietako emaitzak (planenak eta aurrekontuenak) aurkeztu ondoren, Deusto Gizarte Berrikuntzako taldea prest dago aztertutako iraunkortasun planen planifikazio, diseinu eta exekuzioan inplikatuta dauden agenteei hainbat ondorio eta gomendio emateko eta elkarrekin horiei buruz hausnartzeko, iraunkortasunerako Aalborg+10 Konpromisoak bultzatzen jarraitu ahal izateko.

Datuen laburpena jasotzen duen aurreko taulari begiratuta, lehenengo kontuan hartu beharrekoa da konpromiso bakoitzaren azpikonpromiso bakoitzeko ekintzen banaketa oso desorekatua dela eta, ondorioz, konpromisoen artekoa ere bai. Hori ikusita, ikertaldeak hiru arrazoi egon litezkeela uste du.

— Banaketa udalerrien beharren araberakoa izatea. Logikoa da udalek garatutako ekintza planak udalerrian bertan dauden arazoak eta disfuntzioak konpontzera edo desagerraraztera bideratzea. Baina batzuetan, gerta liteke ikuspegi globala galtzea. Aalborg+10 Konpromisoak, ituna izateaz aparte, gida ere badira, etengabe hobetzeko eta bikaintasuna lortzeko bide-orri. Horregatik ikertaldeak gogorarazi nahi du beharrezkoa dela ez pentsatzea «orain egin behar den gauzetan» bakar-bakarrik; aitzitik, beharrezkoa da «etorkizuna aurreikustea, bai bertako biztanleena, bai beste udalerri batzuena, epe ertain eta luzera».



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

- Udalerri batzuetan plan batzuk ez egotea. Emaitzen atalean adierazi dugun moduan, udalerri guztiek ez dituzte garatuta ikergai modura oraingoan hartu ditugun bost planak. Horri horrela izanik, aurrerago aipatuko dugun moduan, emaitzak hori kontuan izanik aztertu behar dira.
- Azpikonpromisoak ez ulertzea. Gai horri buruzko zehaztasunik ez dagoenez, gerta liteke orain arte aztertutako arloen (Agenda 21, Hirigintza, Ingurumena eta Berdintasuna) ardura duten teknikari eta politikariek ez edukitzea jarraibiderik, konpromisoen barruko ekintzak erabakitzerakoan.

Azken batean, Deusto Gizarte Berrikuntzak proposatzen duena da, labur esanda, ahalegin handia egin behar dela planak diseinatzerakoan, oreka bilatuz udalerrien eskarien eta beste arlo batzuk hobetzeko beharren artean, anbizio handiagoko helburuak lortzeko etengabe hobetzen joateko.

Horretarako, beharrezkoa litzateke eskuliburua sortzea, haren bitartez udalek ondo identifikatzeko ekintza bakoitza dagokion azpikonpromisoarekin. Eta ez hori bakarrik, horrela, planen egiturak homogeneizatuko lirateke eta haien arteko konparazioa errazago, zuzenago eta ikusgarriagoa litzateke. Beraz, dokumentu horretan egitura eta edukiak zehaztu beharko lirateke, eta hari begira sailkatuko lirateke udalerrietako iraunkortasunari buruzko plan guztietako ekintzak.

Bigarren puntuari dagokionez, ikertaldeak egoera batzuk antzeman ditu aipatutako desorekaren eragile izan litezkeenak.

Azken udal hauteskundeen ondorioz egindako pertsonal aldaketak eta krisia eta egindako murrizketak direla eta, argi geratu da aipatutako arloetako teknikari eta politikariak hasi berriak direla, lehengo alderdi politikoen ordez udalean sartutakoak, edo aurreko legegintzan arduradun teknikorik gabe egon ondoren sartutakoak. Horrek beste gai batzuk ere oztopatu ditu:

- Ekintza planen, planen jarraipenaren eta abarren informazioa transferitzea. ,Izan ere, udalerrietako pertsona batzuek ez zituzten ezagutzen, proiektu honen aurkezpena zela eta, 2015eko urtarrilean Tokiko Iraunkortasunari buruzko Bizkaiko Lehenengo Topaketan azaldu ziren misioa eta urratsak.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

— Aurreko kanpainan sailaren jarduera gutxitu egin da eta, batzuetan, ez da jarduerarik izan pertsonalik ezagatik, eta, hori dela eta, teknikariek ez zuten gaitasunik eta ezagutzarik, eskura jarritako sailkapenak balioztatzeko edo eztabaidatzeko.

Azaldutako emaitzei dagokienez, Deusto Gizarte Berrikuntzak gogorarazi nahi du du irizpide kritikoa erabiliz aztertu behar ditugula: batetik, udalerri guztiek ez dituztelako plan guztiak egin, eta, bestetik, metodologian esan dugun moduan, ekintza asko beste azpikonpromiso batzuen barruan egon zitezkeelako, kontuan izandako aldagaien arabera.

Lehenengo puntuari dagokionez, hau da, udal guztiek ez izatea aztertutako planen %100 eginda, Deustuko Unibertsitateko ikertaldeak jasota utzi nahi ditu proiektu honetan parte hartu duten gehienek egin dizkioten iruzkinak. Behin baino gehiagotan, teknikariek adierazi dute arlo horretako politikariek badutela asmoa falta diren planak sortzeko. Behin baino gehiagotan adierazi denez, Tokiko Agenda 21 planak dira hedatuenak, seguruenik diru laguntzak lortzeko eskatzen diren baldintzengatik. Berdintasun planak dira, agenda 21en ondoren, ohikoenak gizarteko eskaeragatik eta udalek hain garrantzitsua den gaiaren inguruan hartu duten erantzukizunagatik.

Aurrekontuak, beharbada proiektuaren faserik konprometituena, erronka handia izan dira ikertaldearentzat. Aurrekontuak aurkezteko orduan, alde handia dago udal batetik bestera. Epigrafe beraren barruan sartutako aurrekontuko bi partida antzekotzat har balitezke ere, horrek ez du esan nahi ekintza berdinak egin direnik, ezta kopuru berdina ere, ezta ekintza horietarako gastua planetan programatutakoari dagokionik ere.

Iradokizun modura, kontuan izanik Deusto Gizarte Berrikuntzaren helburua dela ikerketak zientifikoak, aplikagarriak eta erabilgarriak izan daitezen administrazio, agente, ikertzaile eta herritar guztientzat, prest egongo litzateke ikerketa horrekin beste urrats batzuk emateko. Bigarren parte batean, udalerri bakoitzean burututako ekintzak har litezke erreferentzia modura. Horrela, aurrekontuetan duten eraginaren irudi zehatzagoa emango litzateke eta, beraz, ikuspegi zehatzagoa izango genuke 5.000 biztanletik gorako udalerriek iraunkortasunaren arloan egiten ari direnaz.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

# 6

# Esker ona

Deustuko Unibertsitateak eta Deusto Gizarte Berrikuntza taldeak esker ona adierazi nahi die 35 udalei eta euren mankomunitateei ikerketa hau egiteko emandako laguntza estuagatik eta ekarpenagatik. Telefono eta posta bidezko harremana etengabea izan da eta langileen jarrerak aukera eman du harreman eta lan esparru berriak eta konfiantza eta lan inguru birtuala baina hurbila sortzeko.

Aipamen berezia egin nahi diegu, jakina, Bizkaiko Foru Aldundiari eta bertako langileei, batez ere Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

# 7

# Erreferentzia bibliografikoak


Aalborg Commitments Secretariat. (2004). Los compromisos de Aalborg+10. Retrieved January 15, 2016, from http://www.ccre.org/docs/Aalborg03_05_span.pdf

Asamblea General de las Naciones Unidas. (1987). *Nuestro futuro común: Informe Brundtland*. (C.M. del M.A. y del Desarrollo, Ed.). Madrid.

*Bizkaia 21 Egitasmoa: Bizkaiko Foru Aldundiaren estrategia garapen iraunkorrerako*. Bilbao: [Bilbao]: Bizkaiko Foru Aldundia, Ingurumen Saila.

UICN; PNUMA et WWF (1992). *Cuidar de la Tierra, Estrategia para el futuro de la vida*.


## Erabilitako udal agiriak, udalen arabera

### *Abadiño*


— Abadiño Tokiko Agenda 21, Iraunkortasunerako udal prozesua (2007ko otsaila).
— Abadiño, Traña-Matiena inguruko trenbideak eta aparkalekuaren erabilera aztertu (datuak jaso, diagnosia eta proposamenak) (2014).
— Abadiñoko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Plana (2008-2011).




© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

## *Abanto Zierbena*

— Abanto-Zierbenako Tokiko Agenda 21.
— Abanto-Zierbenako Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana, 2012-2020ko Alkateen arteko hitzarmenaren ekimenaren barruan.
— Berdintasun Plana (2016).

## *Amorebieta-Etxano*

— Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2006).
— Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Udal Plana (2005).

## *Arrigorriaga*

— Arrigorriagako Tokiko Agenda 21 Ekintza Planaren berrikusketa (2013).
— Nerbioi-Ibaizabal Eskualdeko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana (2011).
— Arrigorriagako Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana (2013-2015).

## *Balmaseda*

— Balmasedako Iraunkortasunerako Ekintza Plana (2013-2020).
— Balmasedako Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana (2012).
— Balmasedako Klima Aldaketaren aurkako Udal Plana 2010-2014.
— Balmasedako Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako plana (2010-2014).

## *Barakaldo*

— Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2009-2014).
— Barakaldoko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana (2006-2010).

## *Basauri*

— Tokiko Agenda 21 Ekintza Planaren berrikusketa (2013ko martxoa).
— Basauriko udalaren Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana (2012-2020).
— Basauriko Udalaren Mugikortasunerako Plana (2015-2016).
— Basauriko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana (2005).

## *Berango*

— Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2020).



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

— Uribe Kosta Mankomunitateko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana.
— Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana.


## *Bermeo*


— Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2006).
— Bermeoko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana (2008-2009).
— Bermeoko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako I. Plana (2010-2013).


## *Berriz*


— Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2006).
— Berrizko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Plana (2012-2015).


## *Bilbao*


— Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2005-2008).
— Bilboko Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana (2012-2020).
— Bilboko Udalaren Klima Aldaketaren aurkako Tokiko Ekintza Plana (2012-2020).
— Bilboko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Plana.


## *Derio*


— Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2006).
— Derioko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana.


## *Durango*


— Durangoko Udalaren Tokiko Agenda 21aren II. Ekintza Plana (2013-2020).
— Durangoko Udalaren Klima Aldaketaren aurkako Plana (2010-2015).
— Durangoko Udalaren Mugikortasun Iraunkorrerako Plana (2010).
— Durangoko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako I. Plana (2011).


## *Elorrio*


— Elorrioko Udalaren Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2007).
— Elorrioko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Plana (2014).




© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

## *Erandio*

— Erandioko Udalaren Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2007).
— Erandioko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana (2010).

## *Ermua*

— 2006ko martxoko Ekintza Plana.
— Ermuko Udalaren Mugikortasun Iraunkorrerako Plana.
— Ermuko Udalaren Mugikortasun Iraunkorrerako eta Klimaren aldeko Plana.
— Ermuko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Plana (2013).

## *Etxebarri*

— 2013ko otsaileko Ekintza Plana.
— Mugikortasun Planerako III. Ekintza Proposamenak 2007.

## *Galdakao*

— 2013ko otsaileko Ekintza Plana.
— Nerbioi-Ibaizabal Eskualdeko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana (2011).
— Galdakaoko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana (2014-2017).

## *Gernika-Lumo*

— 2012-2020 Ekintza Plana.
— Gernika Lumoko Udalaren Mugikortasun Plana 2012.
— Gernika-Lumoko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana (2008-2011).

## *Getxo*

— Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2012-2015).
— Getxoko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Plana (2011-2014).

## *Gorliz*

— 2006-2010 Ekintza Plana.



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

— Uribe Kosta Mankomunitateko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana (2009-2014.
— Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana.


## *Güeñes*


— 2004ko Ekintza Plana.
— Gueñesko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana (2012).


## *Leioa*


— Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2009).
— Leioako Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Plana (2016).


## *Lekeitio*


— Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2005).
— Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Lekeitioko Udaleko I. Plana (2006-2009).


## *Markina-Xemein*


— Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2005).
— Markinako Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako I. Plana (2017).


## *Mungia*


— 2013ko martxoko III. Ekintza Plana.
— Mungiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Plana (2013).


## *Muskiz*


— Ekintza Plana eta Jarraipen Plana 2013.
— Muskizko Udalaren Irisgarritasun Plana.
— Bizikletentzako udal plana.
— Eskola Mugikortasuneko udal plana.
— Muskizko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana (2009).




© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

## *Ondarroa*

- Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (Lea-Artibai).
- Ondarroako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III. Udal Plana.

## *Ortuella*

- Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2010).
- Ortuellako Udalaren Berdintasunerako II. Plana (2019).

## *Portugalete.*

- Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2014-2020).
- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Plana (2015-2019).

## *Santurtzi*

- Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2009).
- Santurtziko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Plana (2016).

## *Sestao*

- Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2006).
- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Plana (2010-2012).

## *Sopela*

- Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2020).
- Uribe Kosta Mankomunitateko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana (2009-2014.
- Uribe-Kostako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana.

## *Trapagaran*

- Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2013).
- Trapagarango Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana (2015).

## *Zalla*

- Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana (2012-2015).
- Berdintasunerako Plan Operatiboa (2015).



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

# 8
# Eranskinak

© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

# I. eranskina. Aalborg+10 Konpromisoak eta Azpikonpromisoak laburbiltzen dituen taula

| 1. Konpromisoa. Gobernatzeko moduak | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1.1. Azpikonpromisoa | 1.2. Azpikonpromisoa | 1.3. Azpikonpromisoa | 1.4. Azpikonpromisoa | 1.5. Azpikonpromisoa |
| Epe luzean, hiri edo herri iraunkorrari buruzko ikuspegi komuna osatzea. | Tokiko komunitateen eta udal administrazioen parte hartzea eta horiek modu iraunkorrean garatzeko duten gaitasuna areagotzea. | Tokiko sektore guztiei aktiboki parte hartzeko eskatzea. | Erabaki irekiak, arduratsuak eta gardenak hartzea. | Beste udalerriekin, herriekin, hiriekin eta gobernu erakundeekin bat etorriz eta modu eraginkorrean lankidetzan aritzea. |
| **2. Konpromisoa. Iraunkortasunaren aldeko udal kudeaketa** | | | | |
| 2.1. Azpikonpromisoa | 2.2. Azpikonpromisoa | 2.3. Azpikonpromisoa | 2.4. Azpikonpromisoa | 2.5. Azpikonpromisoa |
| Tokiko Agenda 21 eta iraunkortasunaren aldeko tokiko beste prozesuak sendotzea eta udal kudeaketan errotzea. | Iraunkortasunaren aldeko kudeaketa integratua posible egitea, prebentzio printzipioetan oinarrituta eta EBko Hiriko Gaikako Estrategiarekin bat etorriz. | Aalborg-eko Konpromisoen esparruan helburuak finkatzea eta epeak zehaztea, eta konpromisoen segimendua egitea errazten duten kontrol lanabesak eratzea. | Udaletako erabakiak hartzeko prozesuetan iraunkortasun gaiak aintzat hartzen direla eta baliabideak ustiatzeko iraunkortasun printzipio irmo eta zabalak kontuan hartzen direla ziurtatzea. | Hiri eta Herri Iraunkorren Europako Kanpainarekin eta horren sareekin elkarlanean aritzea, iraunkortasun helburuak erdiesteko egin dugun bidea gainbegira eta ebalua dezan. |
| **3. Konpromisoa. Natur ondasun komunak** | | | | |
| 3.1. Azpikonpromisoa | 3.2. Azpikonpromisoa | 3.3. Azpikonpromisoa | 3.4. Azpikonpromisoa | 3.5. Azpikonpromisoa |
| Energia primarioaren kontsumoa murriztea eta energia garbien nahiz berriztagarrien kontsumoa handitzea. | Uraren kalitatea hobetzea, ura aurreztea eta modu eraginkorragoan baliatzea. | Biodibertsitatea indartzea eta areagotzea eta berdeguneak nahiz natur guneak zaintzea eta gehiago sortzea. | Lurzoruaren kalitatea hobetzea, ekoizpen ekologikoko lurrak babestea eta nekazaritza nahiz basozaintza iraunkorrak sustatzea. | Airearen kalitatea hobetzea. |
| **4. Konpromisoa. Kontsumo eta bizimodu arduratsuak** | | | | |
| 4.1. Azpikonpromisoa | 4.2. Azpikonpromisoa | 4.3. Azpikonpromisoa | 4.4. Azpikonpromisoa | 4.5. Azpikonpromisoa |
| Hondakinak murriztea eta gehiago birziklatzea eta berrerabiltzea. | Hondakinak jardunbide egokien arabera kudeatzea eta tratatzea. | Energia premiarik gabe kontsumitzea saihestea eta energia eraginkortasuna hobetzea kontsumitzen den lekuan. | Erosketa iraunkorrak egitea. | Kontsumo eta ekoizpen iraunkorra aktiboki sustatzea, batik bat, etiketa ekologikoa duten produktuak, gai organikoak eta bidezko merkataritzako produktuak bultzatuta. |



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

| 5. Konpromisoa. Hirigintza diseinatzea eta planifikatzea | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 5.1. Azpikonpromisoa | 5.2. Azpikonpromisoa | 5.3. Azpikonpromisoa | 5.4. Azpikonpromisoa | 5.5. Azpikonpromisoa |
| Leku degradatuak eta bertan behera utzitakoak berreskuratzea eta berrerabiltzea. | Hiriak neurrigabe handitzea eragoztea, hiri dentsitate egokiak izatea eta hiriaren garapena ustiatu diren lekuetara bideratzea berdeguneetara bideratu beharrean. | Lurzoruaren erabilera mistoa bultzatzen duen hirigintza bermatzea, oreka lortzea lantokien, etxebizitzen eta zerbitzuen artean eta bizilekuei lehentasuna ematea hirigunean. | Gure hiriko kultur ondarea behar bezala gordetzen, berritzen eta berrerabiltzen dela ziurtatzea. | Eraikuntza eta diseinu iraunkorrak egiteko eskakizunak ezartzea eta kalitate handiko arkitektura bultzatzea eraikuntzako teknologia berriak indartuz. |
| **6. Konpromisioa. Mugikortasuna hobetzea eta zirkulazioa murriztea** | | | | |
| 6.1. Azpikonpromisoa | 6.2. Azpikonpromisoa | 6.3. Azpikonpromisoa | 6.4. Azpikonpromisoa | 6.5. Azpikonpromisoa |
| Motorizatutako garraio pribatuarekiko mendekotasuna txikitzea eta guztien eskura dauden alternatiba erakargarriak bultzatzea. | Garraio publikoan, oinez eta bizikletaz mugitzen den jende kopurua areagotzea. | Ohiko ibilgailuaren ordez emisio poluitzaile gutxi igortzen dituztenak hartzea erraztea. | Hiriko mugikortasun iraunkorrerako plan integratuak garatzea. | Garraioak ingurumenean eta osasun publikoan duen inpaktua txikitzea. |
| **7. Konpromisoa. Osasunaren aldeko tokiko ekintza** | | | | |
| 7.1. Azpikonpromisoa | 7.2. Azpikonpromisoa | 7.3. Azpikonpromisoa | 7.4. Azpikonpromisoa | 7.5. Azpikonpromisoa |
| Kontzientzia publikoa areagotzea eta ekintzak egitea osasunerako erabakigarriak diren alderdi askotan, osasun sektorearekin zuzenean lotuta ez badaude ere. | Udalek osasun planak gara ditzaten bultzatzea, hirietan ongizaterako aliantza estrategikoak sortzen eta mantentzen dituzten bideak izan ditzaten. | Osasun arloko desberdintasunak murriztea eta pobrezia gainditzea: horretarako, desberdintasun horiek urritzeko emandako aurrerapausoak aztertu behar dira aldizka. | Osasun inpaktuak ebaluatzea sustatzea, sektore guztiak ahalegin daitezen osasuna eta bizi kalitatea hobetzen. | Hiri plangintzako eragileak mobilizatzea osasun publikoa kontuan har dezaten hirien plangintza egiteko estrategietan eta ekimenetan. |
| **8. Konpromisoa. Tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra** | | | | |
| 8.1. Azpikonpromisoa | 8.2. Azpikonpromisoa | 8.3. Azpikonpromisoa | 8.4. Azpikonpromisoa | 8.5. Azpikonpromisoa |
| Neurriak hartzea tokiko enplegua eta enpresak sortzea errazteko. | Tokiko enpresekin lankidetzan aritzea jardunbide korporatibo egokiak sustatzeko eta ezartzeko. | Enpresen kokalekua zehazteko, iraunkortasun printzipioak garatzea eta ezartzea. | Merkatuei pizgarriak ematea kalitate handiko tokiko nahiz eskualdeko produktuak eros ditzaten. | Tokiko turismo iraunkorra sustatzea. |



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

| 9. Konpromisoa. Berdintasuna eta justizia soziala | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 9.1. Azpikonpromisoa | 9.2. Azpikonpromisoa | 9.3. Azpikonpromisoa | 9.4. Azpikonpromisoa | 9.5. Azpikonpromisoa |
| Pobrezia geldiarazteko eta arintzeko neurriak garatzea eta ezartzea. | Jende guztiari aukera berak ematea zerbitzu publikoak, hezkuntza, lana, trebakuntza, informazioa eta kultur jarduerak eskuratzeko. | Gizarteratzea eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna sustatzea. | Herritarren segurtasuna hobetzea. | Kalitate oneko bizi baldintzak eta sozialki integratuta dauden etxebizitza onak bermatzea. |
| **10. Konpromisoa. Tokian tokitik mundu globalera** | | | | |
| 10.1. Azpikonpromisoa | 10.2. Azpikonpromisoa | 10.3. Azpikonpromisoa | 10.4. Azpikonpromisoa | 10.5. Azpikonpromisoa |
| Ikuspegi estrategiko eta integratu bat garatzea eta martxan jartzea klima aldaketa arintzeko, eta berotegi efektua eragiten duten gasen emisio kantitatea iraunkorra izan dadin lan egitea. | Ingurumena babesteko politika gure politiken muinean sartzea energia, garraio, kontsumo, hondakin, nekazaritza eta basozaintza arloetan. | Klima aldaketak izan ditzakeen kausei eta eraginei buruzko kontzientzia handitzea eta prebentzio ekinak sartzea klima aldaketari buruzko gure politiketan. | Mundu osoko ingurumenean eragiten dugun inpaktua txikitzea eta ingurumen justiziaren printzipioa indartzea. | Hirien eta herrien nazioarteko lankidetza sustatzea eta mundu osoko arazoei tokian erantzunak ematea tokiko gobernuekin, komunitateekin eta interesa duten alderdiekin elkartuta. |

*Iturria:* «Aalborg+10 Konpromisoak» dokumentua (2004).



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6

## II. eranskina. Ekintzen eta Aalborg+10 Konpromisoen alderaketa aztertutako planetan

| | Aalborg+10 Konpromisoak | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1. K. Gobernatzeko moduak | 2. K. Iraunkortasunaren aldeko udal-kudeaketa | 3. K. Natur ondasun komunak | 4. K. Kontsumo eta bizimodu arduratsuak | 5. K. Hirigintza diseinatzea eta planifikatzea | 6. K. Mugikortasuna hobetzea eta zirkulazioa murriztea | 7. K. Osasunaren aldeko tokiko ekintza | 8. K. Tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra | 9. K. Berdintasuna eta justizia soziala | 10. K. Tokian tokikotik mundu globalera | EKINTZAK GUZTIRA | |
| Bizkaiko udalerrien ekintzak guztira. TOKIKO AGENDA 21 | 371 | 180 | 501 | 374 | 279 | 416 | 215 | 481 | 690 | 59 | 3566 | TOKIKO AGENDA 21 |
| Tokiko Agenda % | 10,40 | 5,05 | 14,05 | 10,49 | 7,82 | 11,67 | 6,03 | 13,49 | 19,35 | 1,65 | ***48,90*** | |
| Konpromisoa % | 27,44 | 35,29 | 86,98 | 68,00 | 58,61 | 47,87 | 41,83 | 69,61 | 41,37 | 68,60 | | |
| Bizkaiko udalerrien ekintzak guztira. ENERGIA JASANGARRIA | 13 | 21 | 37 | 97 | 39 | 41 | 0 | 12 | 0 | 0 | 260 | ENERGIA JASANGARRIA |
| Energia Jasangarria % | 5,00 | 8,08 | 14,23 | 37,31 | 15 | 15,77 | 0 | 4,62 | 0 | 0 | ***3,57*** | |
| Konpromisoa % | 0,96 | 4,12 | 6,42 | 17,64 | 8,19 | 4,72 | 0,00 | 1,74 | 0,00 | 0,00 | | |
| Bizkaiko udalerrien ekintzak guztira. KLIMA ALDAKETA | 26 | 18 | 32 | 73 | 19 | 58 | 9 | 22 | 5 | 11 | 273 | KLIMA ALDAKETA |
| Klima aldaketa% | 9,52 | 6,59 | 11,72 | 26,74 | 6,96 | 21,25 | 3,30 | 8,06 | 1,83 | 4,03 | ***3,74*** | |
| Konpromisoa % | 1,92 | 3,53 | 5,56 | 13,27 | 3,99 | 6,67 | 1,75 | 3,18 | 0,30 | 12,79 | | |
| Bizkaiko udalerrien ekintzak guztira. MUGIKORTASUNA | 68 | 16 | 6 | 6 | 66 | 323 | 17 | 20 | 38 | 10 | 570 | MUGIKOR-TASUNA |
| Mugikortasuna % | 11,93 | 2,81 | 1,05 | 1,05 | 11,58 | 56,67 | 2,98 | 3,51 | 6,67 | 1,75 | ***7,82*** | |
| Konpromisoa % | 5,03 | 3,14 | 1,04 | 1,09 | 13,87 | 37,17 | 3,31 | 2,89 | 2,28 | 11,63 | | |
| Bizkaiko udalerrien ekintzak guztira. BERDINTASUNA | 874 | 275 | 0 | 0 | 73 | 31 | 273 | 156 | 935 | 6 | 2.623 | BERDIN-TASUNA |
| Berdintasuna % | 33,32 | 10,48 | 0,00 | 0,00 | 2,78 | 1,18 | 10,41 | 5,95 | 35,65 | 0,23 | ***35,97*** | |
| Konpromisoa % | 64,64 | 53,92 | 0,00 | 0,00 | 15,34 | 3,57 | 53,11 | 22,58 | 56,06 | 6,98 | | |
| **EKINTZEN GUZTIZKO BATURA** | **1.352** | **510** | **576** | **550** | **476** | **869** | **514** | **691** | **1.668** | **86** | **7.292** | |
| **GUZTIZKO EHUNEKOAK** | 18,54 | 6,99 | 7,90 | 7,54 | 6,53 | 11,92 | 7,05 | 9,48 | 22,87 | 1,18 | 100 | |



© Deustuko Unibertsitatea / BizkaiLab - ISBN 978-84-15759-83-6